

10/23

irizpena

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren
erregelamendua onartzen duen

Dekretu-proiektuari buruzkoa

Bilbon, 2023ko ekainaren 16a



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Irizpena 10/23

I.- AURREKARIAK

2023ko maiatzaren 31n, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren idatzia sartu zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean; haren bidez, *Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Erregelamendua onartzen duen Dekretu-proiektuari* buruzko irizpena eskatu zen, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Kontsultak hizpide duen arauaren xedea da Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legean ezarritakoa garatzea, diru-sarrerak bermatzeko errentari dagokionez.

Berehala, dokumentuaren kopia bana bidali zitzairen Batzordearen Osoko Bilkurako kide guztiei, beren proposamenak eta iritzia bidaltzeko eta horien berri emateko dagokien Lan Batzordeari, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendu Araudian ezartzen denaren arabera. 2023ko ekainaren 13an, Gizarte Garapenerako Batzordea bildu zen eta, hartutako erabakietatik abiatuta, honako irizpen-proiektu hau egin zuen Batzordearen ekainaren 16ko Osoko Bilkuran lantzeko. Aho batez onartu da bertan.

II.- EDUKIA

“Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Erregelamendua onartzen duen Dekretu-proiektuak” zioen azalpen bat, artikulua bakarra, hiru xedapen gehigarri, hiru xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen ditu. Artikulu bakarrak Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Erregelamenduaren testua onesten du.

Zioen azalpenean azaltzen denez, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legea diru-sarrerak bermatzeko euskal eredia indartzen duen eta kalteberatasun-egoera guztiak gehiago eta hobeto babestea dakarren ekarpen irmoa da, aldaketa oso esanguratsuak sartu dituen diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) egituraren. Prestazio hori sistemaren ardatz da, eta osorik berrikusi behar da orain arte indarrean egon den erregelamendu-araua.

Dekretu honen bidez onetsitako DSBE Erregelamenduaren xedea da legetik sortutako parametro berrietara egokitzea prestazioa. DSBEren definizio legala osatzen du, funtsezko lau ardatz oinarri dituen arauketaren barruan:

- (1) Prestazioa eskuratzeko eta bizikidetz-unitateak eratzeko betekizunen garapena, batez ere legean ezarritako kalteberatasun-egoera berriei lotutako betekizunena.
- (2) Prestazioaren titularrei eta onuradunei ezartzen zaizkien betebeharrak finkatzea. Legeak betebeharrorien funtsezko inguruneak zehazten ditu.
- (3) Premia ekonomikoaren egoera kalkulatzeko osagaiak zehaztea, hori baita prestazioa aitortzeko beharrezko aurrekontua.
- (4) Administrazio-prozeduren definizioa, prestazio horri lotutako ahal publikoak gauzatzeko beharrezko bide formala

Arauketaren helburua da interesdunen eskubideak bermatzea, eta, horretarako, aurretiaz zehaztu

behar da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak diru-sarrerak bermatzeko errentaren arloko jarduera garatzeko, bere erabakiak hartzeko eta ukitutako pertsonen beren eskubideen eta interesen defentsan parte hartzea bermatzeko baliatzen duen bitartekoa, aldi berean interes publikoa, efikazia eta administrazio-jardunaren arrazionaltasuna zainduta.

Arauketa sakona da, segurtasun juridikoaren onerako, eta funtsean antzekoak diren egoeren aurrean erantzun ezberdinak ematea ahalbidetzen duten interpretaziorako aukerak saihestu dira. Horregatik jarri da arreta berezia 14/2022 Legeak DSBE erabat exekutatzeko delako bermatzeko eskatzen dituen eremu guztiak garatzeko.

DSBEren Erregelamenduak lau titulu eta 141 artikulua ditu:

I. titulua (1. artikulutik 3. artikulura) xedapen orokorreari buruzkoa da, eta arau osoari dagokion erregulazioa jasotzen du.

II. tituluak (4. artikulutik 31. artikulura) prestazioaren titularren eta onuradunen betekizunak ezartzen dira, eta haien betebeharrak zehazten dira.

- I. kapituluak (4-11 artikulua) prestazioaren titularren eta onuradunen betekizunei buruzkoa da, eta Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 16.1.d), 17.1 eta 17.2, 19., 21.2.a), 24.2 eta 25.2 artikulua osatzen ditu, erregelamendu betearazlearen berezko parametroetatik. Zehatz identifikatzen ditu diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular eta onuradun izateko behar diren betekizunak, legea osatzeko eta zehazteko, erregelamenduaren arauaketa behar duten alderdietan soilik.
- II. kapituluak (12-17 artikulua) ezohiko bizikidetzaren unitateak arautzen ditu, aipatutako legearen 26. eta 27. artikulua garatuta. Hala, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak babesten dituen kalteberatasun-egoera guztiak definituta geratu dira.
- III. kapituluak (18-30 artikulua) diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularren eta onuradunen betebeharrari buruzkoa da eta Legearen 29.1, 30.4 eta 31.1.a) artikulua garatzen ditu.
- IV. kapituluaren (31. artikulua) helburua da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak pertsona horiei bidaltzen dizkien komunikazioek bete behar dituzten parametroak definitzea. Zehazki, legearen 72.2 artikulua garatzen du.

III. tituluak (32-54 artikulua) zenbatekoa zehazteko prozesua, premia ekonomikoko egoeraren definizioa eta prestazioaren araubide ekonomikoa arautzen ditu.

- I. kapituluak (32-34 artikulua) araututako zenbatekoaren zehaztapenak zuzeneko lotura du Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 35. eta 36. artikuluekin, eta manu horiek osatu, garatzen edo zehazten dituen arauaketa berri bat sartzen du. Hala da prestazioa aitortzeko, zenbatekoa eguneratzeko eta gerora sortutako beharizan-egoerak deklaratzeko prozeduretan kontuan hartutako gehieneko errenta bermatuari, bizikidetzaren unitateari eta errentei eta diru-sarrei lotutako daten finkapenaren kasuan. Halaber, izaera hori bera dute osagarri indibidualak eta bizikidetzaren unitatearen ezaugarrien arabera osagarri aplikatzearekin lotutako zehaztapenak. Bestalde, indize zuzentzailearen aplikazioarekin lotutako erregelamenduak egiteko ahala baliatuta eman dira, eta legearen azken xedapenetako hirugarrenetik eratorritako parametroetan baino ez daude legearen mende.

- II. kapitulua (35-50 art.) premia ekonomikoko egoerari eta etekinen zehaztapenari buruzkoa da, eta legearen 38. eta 39. artikuluetan jasotako gaikuntza zehatzei erantzuten die, baita eduki tekniko handia duten alderdietan legea garatzeko beharrari ere.

Nabarmentzekoak dira etekinak zehazteko arauak, zeinetan aintzat hartu baita Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretua aplikatu den hamarkada luzean lortutako esperientzia. Alderdi berri garrantzitsuak sartu dira, hala nola norberaren konturako eta besteren konturako lanak eragindako etekinen kalkulua. Lehenengoak, bizikidetzaren unitatearen une bakoitzeko egoera ekonomikoa zehaztasunez islatzeko, ezertan eragotzi gabe PFEZren aitortpenaren ondorioz beharrezkoak izan daitezkeen urteroko arauketa berriak. Bigarrenak, erakundeen arteko lankidetzaren onuren adierazpen gisa, besteren konturako lanaren etekinaren kalkulua Gizarte Segurantzaren araubideko kotizazio-oinarrietatik abiatuta finkatzen baita; diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrei eta onuradunei ez zaie eskatu behar nominaren ordainagiriak bidaltzeko; inguruabar horrek ez die eragiten prestazioaren zenbatekoa zehazteko balio duen informazioaren zehaztasunari eta zuzentasunari.

- Titulu hori amaitzeko, III. kapituluak (51-54 art.) prestazioaren araubide ekonomikoa arautzen du. Nabarmentzekoa da bidegabe jasotako kopuruen itzulketari buruzko artikulua. Legearen 64. artikuluan xedatutakoa garatzen du, eta egokitu egiten du konpentsazioaren erregela diru-sarrerak bermatzeko errentaren berezitasunera eta prestazioaren titularren eta onuradunen kalteberatasun-egoera berezira. Aldi berean, interes publikoa babesten da, eta zerga-bilketaren kudeaketa egokia eta efikaza izatea sustatzen da, zorren ordainketa bermatzeko.

IV. tituluak (55-141 art.) zortzi kapitulu ditu, eta haren xedea da prozedurak arautzea.

- I. kapitulua (55-61 art.) xedapen orokorrei buruzkoa da, eta legearen 69. artikulua pertsonen aitortutako eskubideekiko konpromisoa berresten du, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren arreta eta laguntza emateko betebeharrak zehazten ditu eta ahal dela bide elektronikoen bidez garatu behar den izapidetzearen aldeko betebeharrak batzuk zehazten ditu.
- II. kapituluak (62-74 art.) diru-sarrerak bermatzeko errenta aitortzeko prozedura du xedatzen. Izapidetzeak arautzeaz gain, eskabideen eta erantzukizunpeko adierazpenen eredu normalizatuen antolamendu xehatua du. Izan ere, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 79. eta 80. artikuluetan ezarritakoaren ondorioz, garrantzi berezia dute prozedura honetan, kalteberatasun-egoeretan babesa berehalak emateko.
- III. (75-88 art.) eta IV. kapituluak (89-104 art.) zenbatekoa eguneratzeko eta gerora sortutako beharizan-egoera deklaratzeko prozedurak arautzen dituzte. Legezko gaikuntza berezia dute legearen 35.1.b) eta 82. artikuluetan. Bi prozedura berri dira, izapidetze azkarrekoak, eta interesdunen bermeak babesten dituzte.
- IV. kapituluak (89-104 art.) gerora sortutako beharizan-egoera deklaratzeko prozedura arautzen du. Orain arte ezezaguna izan den prozedura bat da, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 35.1.b) artikuluan xedatutakotik sortutakoa. Hau dio artikulua horrek: *“Erregelamendu bidez, zenbatekoa zehazteko beste aldi batzuk ezarri ahal izango dira, gerora sortutako beharizan-egoerei erantzuteko”*.

Zenbatekoak eguneratzeko aldizkako sistema zuzentzeko mekanismorik ezarri ezean, babesik gabe gera daitezkeen premia ekonomikoko egoera larriak identifikatzeko prozedura da. Horrenbestez, prozedura subsidiario bat da, haren xedea baita babesgabetasun-egoera bat konpontzea oro har aplikatu beharreko tresnek konponbide hori bermatzen ez dutenean.

- V., VI. eta VII. kapituluaren xedea da, hurrenez hurren, kontrol-prozedura (105-114 art.), zehapen-prozedura (115-128 art.) eta bidegabe jasotako kopuruak itzultzeko prozedura (129-135 art.) arautzea. Lehenengo bien berritasun nagusia da prozedura berean deklaratu ahal dela bidegabe jasotako kopuruak itzuli behar direla, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 64.6 artikuluan xedatutakoa garatuz, eta hirugarren prozedura subsidiarioa da.
- Azkenik, VIII. kapituluak (136-141 art.) prozedura intzidentalak arautzen ditu, hala nola, titularra hil delako edo egoitza batean sartu delako edo beste inguruabar batzuk daudelako, DSBEren titularra aldatzekoa, edo prestazioa titularra ez den pertsona bati ordaintzekoa.

III.- GOGOETA OROKORRAK

I.– Aurretiatzko gogoeta

Gure irizpean jarri da Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legean jasotako aurreikuspenak garatzen dituen *“Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Erregelamendua onartzen duen Dekretu-proiektua”*.

14/2022 Legea egin bitartean, zeina, bere garaian, Batzorde honek positiboki baloratu baitzuen, pozik egiaztatu dugu haren izapidetzea inplikaturako eragileen parte-hartze bizi eta eraginkorrek batera garatu zela. Gure ustez, hain konplexua den sistema horren araudia aldatzeak adostasun sozial zabala eskatzen zuen, haren ezarpena indartzeko; eta inplikaturako parte-hartze eraginkor horrek sistemaren ezarpen hobea bermatzen du.

Ildo horretatik, nahiago izango genuke orain aurkeztu diguten dekretu-proiektua, Legearen izapidetzearen ildotik, modu arruntean izapidetu balitz (eta ez premiaz, horrek berekin dakarren epe-murrizketarekin), hartara, inplikaturako erakunde eta eragileek berau aztertzeke denbora gehiago izan zezaten.

Nolanahi ere, jakin badakigu eta ulertzen ditugu Eusko Jaurlaritzak prozesua azkartzeko aipatzen dituen pisuzko eta presazko arrazoiak, hala nola 18 eta 23 urte bitarteko gazteek errenta eskuratzea, premia larriaren definizioa edo bizikidetzaren unitateei buruzko berezitasunak.

II – Arauaren balorazioa

Proposatutako egitura eta arau-erakunde dagokienez, oro har, positibotzat jotzen dugu dekretu-proiektu honetan jasotzen den arau-esparrua.

Bereziki honako alderdi hauek aintzatesten ditugu:

- Erregelamendu berriak jarraitu eta zehaztu egiten ditu 14/2022 Legeak DSBEa politikoki eta ekonomikoki blindatzeko helburuan aurrera egiteko erabiltzen dituen mekanismoak, eta haren

estaldura handitu egiten du, zenbatekoa eta etxebizitza eskuratzeko baldintzak aldatuz. Batzorde honek horren inguruko balorazio positiboa egin zuen bere garaian. Ildo horretatik, zenbait neurri hartu dira, hala nola diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko aukera adin-nagusitasunera jaistea, DSBEaren helburua emantzipazio-errenta izatearekin ez nahasteko beharrezkoak diren betekizun edo kautelekin, erroldatze-baldintzak malgutzea eta zenbatekoak handitzea. Aldaketa horiek, oro har, errentaren elementu zuzentzaile nagusi bihurtzen dira, DSBEaren estaldura-tasa handitzen duten neurrian.

- Orain proposatzen zaigun testuak argi eta garbi adierazten du legearen kontzeptu tekniko eta juridikoak interpretatzeko irizpideak argitzeko eta zehazteko bokazioa. Aurreko araudian oso argi ez zeuden edo irizpideetan oinarrituta interpretatzen ziren gai asko zehatz-mehatz arautzen direnez, interpretazio egokia mugatu daiteke. Horrek dirulaguntzen onuradunen segurtasun juridikoa errazten du.

Ildo beretik, garrantzi berezia hartzen dute hizkuntza erraz eta irisgarria erabiltzeko premiari egindako apelazio ugariak, Erregelamenduan jaso baitira (57. artikulua. Eredu normalizatuak), bai eta hartzaileetako batzuen inguruabarrak kontuan hartu izana ere, aurrez aurreko arreta zaintzeko.

- Era berean, Dekretu hau sistema osoa sistematizatzeko asmo argiarekin sortu da. Hau da, ordena- eta kontrol-irizpideetan, kudeaketaren efizientzian eta modernizazioan, eta prozeduren sinplifikazioan eta bateratzean oinarritutako administrazio-izapidetzea eratu nahi da. Hori antzeman daiteke, adibidez, izapidetze elektronikoa indartuko delako, erantzukizunpeko adierazpen bidezko sarbidea erraztuko delako, zenbatekoa eguneratzeko prozedura arrazionalizatuko delako (bidegabeko kobrantzak sortzearen arazoa konponduko du horrek), adimen artifiziala erabiliko delako kontrol hobe bat izateko eta itzulketa- eta kontrol-prozedurak bateratuko direlako.

Deskribatutako alderdiek, alde batetik, eragindako pertsonen babesa, parte-hartzea eta segurtasun juridikoa erraztuko dute, haien eskubide eta interesak defendatzeko, eta, bestetik, interes publikoa eta administrazio-jardunaren funtzionaltasuna, arrazionaltasuna eta eraginkortasuna zainduko dituen sistema bat eratuko dute.

Azken batean, gure ustez, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema babesteko eta indartzeko modurik onena herritarrek sistema horrekiko konfiantza izatea eta sistema horren onurak jasotzea da. Horrek sistemaren prestigio soziala indartzen lagunduko du, DSBEri eta haren onuradunei ospe txarra ematea helburu duten diskurtsoak saihesteko.

Hona hemen aipatu nahi ditugun beste gai batzuk:

- Erregelamenduak, Lan eta Enplegu Sailak aitortzen duen bezala, prozedura-berrikuntza ugari ditu, eta horiek eragina izango dute bai onuradunengan, bai Erregelamendu horrekin Lanbiden lan egin behar duten langileengan.

Horiek horrela, funtsezkoa iruditzen zaigu Erregelamendu horrekin jardungo duten pertsonen zuzendutako prestakuntza-prozesua ikuspegi zabaletik garatzea, hasiera batean Lanbideko langileak barne hartuta, eta, ondoren, DSBE jasotzen duten pertsonen laguntzeko lanak egiten dituzten beste gizarte-eragile batzuetara zabaltzea.

- Dekretu honen izapidetzearekin batera doan memoria ekonomikoak zehazten duenez, bizikidetz-

unitatea zehaztearen ondoriozko baldintzak eta betebeharrak aldatuta, inpaktu ekonomikoa 11 milioi euro baino gehiagotan murriztuko dela espero da. Deigarria egiten zaigu bizikidetzak unitateak aurreko ereduaren bezain murriztailea ez den beste modu batean konfiguratzeko aurrezpen hain esanguratsua eragin ahal izatea, eta, alde horretatik, espero dugu horrek ez gaitzala inola ere urrundu gutxieneko errenta bermatuaren tresnaren bidez babestu behar diren premia-egoera guztietara iristeko helburutik.

- Nolanahi ere, komeni da Diru-sarrerak Bermatzeko Sistemaren Legean bertan sortutako organoa baliatzea (147. artikulua. Inklusioaren arloko Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoa) arauaren alderdi hori eta beste batzuk ebaluatzeko eta, hala badagokio, DSBEa behar duten pertsona guztiak babesteko helburutik aldentzeko gaituzten Erregelamenduaren alderdiak berriz aztertzeko.

IV.- GOGOETA BEREZIAK

2 art. Egoitza

Arau honen ondorioetarako, komenigarritzat jotzen da “egoitzatzat” jotzen diren lekuen zerrendan sartzea “komunitate terapeutikoak”, “tratamendu-zentro” ere deitzen direnak.

Komunitate terapeutikoak edo tratamendu-zentroak ez dira gizarte-zerbitzuen esparruan sartzen, osasun-zerbitzuen esparruan baizik, Osasun Sailak baimentzen baititu.

Horregatik, letra lodiz adierazitako testua artikuluko honen **1.d) apartatuan** sartzea proposatzen dugu:

“1.Egoitzatzat hartuko dira, etxebizitzari buruzko legeriaren arabera definitutako etxebizitza eta zuzkidura-bizitokiez gainera, bizikidetzak-unitateetako kideak bizi diren esparru fisiko hauek: ...

*d) Gizarte zerbitzuen, **osasun-zerbitzuen edo beste sistema publiko baten** arloko legerian ezarritakoaren arabera behar bezala inskribatutako eta baimendutako erakunde pribatuek emandako gizarte zerbitzuetako ostatu-zerbitzuak eta egoitza-zerbitzuak, aldi baterako bizilekuak direnean, betiere bertako betekizunak betetzen badira.*

54 art. Bidegabe jasotako kopuruen itzulketa

Izan ere, artikuluko horren **2. apartatuak** honako hau agintzen du:

“2. Diru-sarrerak bermatzeko errenta dela-eta bidegabe jasotako kopuruak itzultzeko betebeharrak konpentsazio bidez gauzatu behar denean, arau hauek beteko dira prestazioaren ordainketaren zenbatekoan egin beharreko deskontuak zehazteko:

a) Zorra bizikidetzak-unitateari dagokion gehieneko errenta bermatuaren % 150etik beherakoa bada, hilero gehieneko errenta bermatuaren % 20 deskontatuko da, gehienez.

b) Zorra gehieneko errenta bermatuaren % 150ekoa edo hortik gorakoa eta % 200dik beherakoa bada, hilero gehieneko errenta bermatuaren % 25 deskontatuko da, gehienez.

c) Zorra gehieneko errenta bermatuaren % 200ekoa edo hortik gorakoa eta % 300dik beherakoa bada, hilero gehieneko errenta bermatuaren % 30 deskontatuko da, gehienez.

d) Zorra gehieneko errenta bermatuaren % 300ekoa edo hortik gorakoa bada, hilero gehieneko errenta bermatuaren % 35 deskontatuko da, gehienez.

Ez dago argi xedapen hori nola interpretatzen den, prestazioa kobratzeari eta haren gehieneko eta gutxieneko zenbatekoei dagokienez.

Gure ustez, jasotako zenbatekoak, baita bidegabe jasotako zenbatekoak itzuliz gero ere, nahikoa izan behar du oinarrizko beharrak asetzeko, eta, horretarako, erreferentzia gisa hartu beharko litzateke Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen 607. artikulua, soldata eta pentsioen enbargaezintasunari buruzkoa, LGS erreferentziarekin. Kontuan izan behar da artikulua horretan jasotako eskala, 54.2 artikulua honekin zerikusirik ez duena, bai eta LGSak azken urteotan izan duen ezohiko igoera ere, estatuko arau horretan jasotakoaren funtza erabat aldatzen baitu.

Bigarrenik, **3. apartatuan** zera xedatzen da: *“aitortutako prestazioaren zenbatekoa kontuan hartuta ezin badira egin deskontuak aurreko apartatuan ezarritako mugen barruan, aitortutako hileko kopuruaren arabera doituko dira”*.

Ez dugu xedapen horren edukia ulertzen. Ez da ondo ulertzen kasu zehatz honetan zer egin nahi den, eta, beraz, idazkera berrikustea iradokitzen dugu.

V.- ONDORIOA

Euskadiko EGABek egokitzat jo du *“Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Erregelamendua onartzen duen Dekretu-proiektua”* izapidetzea, kontsulta-organo honek egin dituen gogoetekin.

Bilbon, 2023ko urtarrilaren 16a

O.E. Presidentea

Emilia M. Málaga Pérez

Idazkari nagusia

Olatz Jaureguizar Ugarte